

FRUTA ETA BARAZKIENTZAT MERKATU BERRIEN BILA JOANGO DIRA BERLINERA BILBOKO PORTUA ETA MERCABILBAO

- **Fruit Logistica azoka egingo da Berlinen, otsailaren 6tik 8ra**
- **Mercabilbao eta Bilboko Portua, duten kokapen estrategikoari esker, ezin egokiagoak dira nazioarteratze-estrategia eraginkor eta kalitatekoa gauzatzeko**

Basaurin, 2019ko otsailaren 4ean.- Bilboko Portuko Agintaritzak eta Mercabilbaok fruta eta barazkien trafikoko berriak erakartzeko dituzten abantailak azpimarratu nahi dituzte Fruit Logisticen, sektoreko Europako azoka nagusian. Otsailaren 6tik 8ra egingo da Berlinen.

Bi erakundeak batez ere Hego Amerikako eta Erdialdeko Amerikako merkatuei zuzenduko zaizkie, eta erakutsiko diete zer abantaila dituzten azpiegituretan eta zerbitzuetan fruta eta barazkiak Europara eta penintsula osora eramateko, errepideko garraioaren ordezkotzat aukera gisa.

2018an, 157.000 tonakoa izan zen fruta-eta barazki-trafikoa Bilboko Portuan, aurreko urtekoa baino % 16 handiagoa. Batez ere ortuariak, tipula, baratxuria, porrua, patata, zitrikoak eta letxuga jaso eta esportatu ziren. Produktu hauen trafikoa hazi da gehien: barazkiak (izoztuak nahiz freskoak), tipula, baratxuria eta porrua, eta banana. Hain zuzen ere, joan den urtean, Boluda Lines ontzi-enpresak Santa Cruz de La Palma eta Bilbo arteko itsasontzi-linea bat jarri zuen martxan, Kanarietako bananak ekartzeko. Edukiontzia hoztuetan iristen dira, eta mota horretako garraioan oso espezializatuta daude bai Boluda eta bai Bilboko Portua.

Berrikuntza eta digitalizazioa

Bilboko Portuak Espainiako iparraldeko kontainer-terminalik garrantzitsuenak du, eta portu-sakonerarik handienekoa. Terminala Noatum Container Terminal

Bilbaok kudeatzen du, eta 540 entxufe-hartune ditu reefer edukiontzietarako. Gainera, sarbide automatizatua du, eragiketa guztiak, produktu freskoen garraiolariena barne, arintzeko eta sinplifikatzeko.

Gune horrek, gainera, ro-ro terminalak eta jarduera askotarako terminalak ditu, biltegitratzeko eta banatzeko gune bat, Progeco eta Frioporten gai galkorretarako biltegiak eta errepide eta trenbide bidezko konexio onak.

Mercabilbaori buruz

2018an, 225.259 tona fruta eta barazki pasatu ziren Mercabilbaoren instalazioetatik, aurreko urtean baino % 2,7 gehiago. Kokapen estrategikoa du: Paris-Hendaia-Madril ardatzaren bidegurutzetik oso gertu dago, Kantauriko autobidearen ondoan, eta zuzeneko lotura du autobide-sarearekin. Horri esker, penintsula iparraldeko elikagai-unitate nagusia da Mercabilbao, eta ezin egokiagoa da barazkiak eta frutak inportatzeko eta esportatzeko estrategia modu eraginkorrean eta kalitatez gauzatzeko.

Lehiatzeko abantaila dakarkie kokapen horrek barazki- eta fruta-sektoreko operadoreei, zenbait aldetatik begiratuta: baliabideak, dirua, denbora, azpiegiturak, biltegi logistikoak...